

Donostia'n, Gipuzkoa'ko Diputazioaren jauregian, bildu dira: Arrue, Irigoyen, Lekuona, Mitxelena eta Villasante euskaltzaiñak; Berriotxo Anaia, Etxaniz, Aita Larrañaga, San Martin eta Zubikarai urgazleak. Irigaray, Lojendio eta Satrustegui euskaltzaiñek, baita ere Arteche eta Zugasti urgazleek adierazi dute beren ezintorria.

Otsailleko batzar-agiria irakurri ondoren ontzat artua izan da.

Arrue'ren eskabidez, eskutitza irakurri da: Euskaltzaindiaren babesa eta geriza eskatzen du Durango'ko "Tronperri" taldeak sortu nai dituen euskal-ikastaldietako. Oi bezela erantzun bekio baiezkotan.

Diez de Ulzurrin jauna medikuaren eskutitza irakurri da Irigaray euskaltzaiñarekin batean Iruñe'ko arzapezpikuari egin zioten ikustaldiaren berri emanaz. Euskaltzaindiaren eskaria eskura zioten eta arzapezpiku jaunak txit amultsuki artu zituen berak eta eskaria.

Araudiaren eraberritzeaz, beste zati bat ere antolatu du Arrue'k eta bere lanaren asmoak eta mugak azaltzen ditu. Leen iru kapituluaren kopia zabaldua dan ezkerro, izketagai izan dedin, azter bitzate guziok zeatz-meatz datorren batzarrean erabakiak ar ditezen. Norbaitek, ezin datorkelarik, bere iritzia azaldu nai baditu, egin beza izkribuz.

Urren, Loyola'n egitekoa dan batzarrea aipatu du Aita Villasante'k. Iragarri diran gaiez mintzatu da Arantzazu'koekin eta ez omen ditu prestegi arkitu, bear adiña oiñarri ematen eztutelako edo. Arrue'k, berriz, uste du an ageri dan eskola-gaiak berak naikoa lan eta geiegi emango duela. Beste dei bat zabaltzea erabaki da, gaiak geiago xeatuaz eta zer-nolako lanak ager ditezkean puntu bakoitzean azalduaz.

Aurten Txomin Agirre eta Azkue'ren eun urtegarrena dugun ezkerro, orien omenez egin bear diran jaiak aipatzen dira. Ondarroa'n prestatu dituzten jai eta sariketa ugarien berri ematen du banan-banan Zubikarai'k. Atsegin biziz entzun dituzte guztiak bere esanak eta Azkue'ren omenez ere zerbait egin bear litzakeala erabaki da: Euskaltzaindia Bilbao'n bildurik, jairen bat antolatu beintzat.

Etxaide euskaltzainburu zanaren idazlan bat ekarri du bere seme Jon'ek. **Euskera-n** ager bedi.

Zadorlariak Lafitte'ren artikulua irakurri du, garoa ango euskalkietan nola adierazten dan azalduaz. Irakurri ondoren, mintzatu dira zenbait gai orrezaz.

Anaia Berriotxoak, gero, aspaldian eratzen ari dan kontuak buruz ateratzeko bidez itzezin du. Zatika eta merke saltzeko asmotan ari dan kontuak buruz ateratze-

ko bidez itzegin du. Zatika eta merke saltzeko asmotan artu du lan ori. Gogoz entzun dute guztiok eta Euskaltzaindiaren laguntza, bear balu, agindu zaio.

Euskaltzaindiaren bulego-lanez izan da urren izketa. Zadorlariak dio komeni litzakeala Euskaltzaindiko kargudunei eskua ematea, langilleren bat ar dezagun arte, lan jakiñak bein-beingo langilleei ematea eta ordaintzea; Bilbao'n, batez ere, diru-eta liburu-zaiak baren lanak artu eztituzten bitartean, orrelako zerbait bear-bearrezkoa da. Orrela erabaki da ao batez.

Zadorlariak aipatu du aldizkariren bat asi dala gure batzarren berri ematen. Esker onez ikusten dugu ori, baiña obe litzake, ezbearrik gerta eztedin, albiste oriek Euskaltzaindiak berak ematea edo, gutxienez, Euskaltzaindikoek ikustea agertu baino leen. Orixe da guztion iritzia eta, iritzi orren arabera, onena litzake zadorlariak berak batzar-berriak antolatzea aldizkarietarako, orretarako astirik arkitzen baldin badu, Orrela asiko da egiten eta batzarre onetatik asi ere.

Oi diran otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.